

andre maria zuria



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

BADATOR ZELEDON

ERRAZTU EGITEN DIZUGU METODIKAREKIN

GOAZEN DENOK GASTEIZKO JAIETARA!
Euskaraz goaztu eta ordo pakatzeko, euskaraz emazago bat dazul!

EUSKARA ESKOLAK GASTEIZEN ETA LESAKAN
CLASES DE EUSKERA EN GASTEIZ Y LESAKA

ika
euskaraz emazago egiten

[f](https://www.facebook.com/ika) [i](https://www.instagram.com/ika) ikaeuskaitegiak.eus

GASTEIZ 945 154 341 LESAKA 948 637 796 ERRIOXA 945 601 067 IRUÑEA 948 222 246 BARAÑAIN 948 186 325 ATARRABIA 946 332 660
LEITZA 948 610 776 DONEZTEBE 948 451 555 BARNETEGIA 688 800 263

» Abuztuak 4, astelehena

10:00 • Eduardo Daton, Photocall-a.
10:30 • Foru plazako pilotalekuan, Andre Maria Zuriaren jaietako eskal pilota txapelketa.
18:00 • Andre Maria Zuriaren plazan, jaien hasiera suziariaren jaurtiketarekin eta Zeledonon jaitsierarekin, Valecea pirotekniaren suzirik lagunduta.
18:30 • Kalez kale, San Prudentzio kaletik hasita, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten konpartsa.
19:00 • Florida parkean, dantzaldia Plan B orkestrarekin.
19:15 • Udaltxean hasita, udal segizioa bezperetara joatea.
19:30 • San Migel elizan, Andre Maria Zuriaren omenezko bezperak.
19:30 • San Migeleko eskalieren azpian, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten konpartsen dantzaldia.
20:30 • Aihotz plazan, Iarrain dantza eta txulalari.
22:00 • Kalez kale, Erdialdean, farolen arrosarioko prozesioa
22:30 • Principal antzokian, *En verdad os digo* antzezklana.
23:30 • Olagibel kalean, zezensuzkoak eta musika giroa.
00:00 • Foru plazan, La Pegatina.
00:00 • Arka plazan, Lisker.
00:00 • Erdialdean eta hirigune historikoan, musika giroa Kilkir eta Indarra fanfarreekin.
00:30 • Espainia plazan, Taxxara orkestra.
01:00 • Txosnetan, Izerdi Gorria.

» Abuztuak 5, asteartea

07:00 • Andre Maria Zuriaren plazan eta hirigune historikoan, arrosarioaren egunsentiko prozesioa.
08:00 • Andre Maria Zuriaren plazan, egunsentiko meza.
09:00 • Espainia plazatik hasita, kalejira.

09:00 • Andre Maria Zuriaren irudia dagoen plazatxoan, lore eskaintza eta ohorezko aurrekua Andre Maria Zuriari.
09:00 • Erdialdean, Batasuna taldekoek erdialdeko kaleak girotuko dituzte idiek tiratutako gurdiarekin.
10:30 • San Migelen, gotzain meza.
10:30 • Zezen plazan, bigantxak.
10:30 • Foru plazako pilotalekuan, *Green Capital* pilota txapelketa.
11:00 • Kalez kale, San Prudentzio kaletik hasita, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten konpartsa.
11:30 • San Migeleko eskalieretan, buruhandi konpartsen dantzaldia.
11:30 • Pradon, abentura gunea.
12:00 • Loma jeneralaren plazan, gastronomia eta eskulangintza.
12:00 • Espainia plazan, Gasteizko zortzikoak. Sokadantza. Gasteizko dantzariak eta Txistulari Banda.
12:00 • Espainia plazan hasita, trikitilarien kalejira.
12:00 • Kalez kale, Andre Maria Zuriaren plazan hasita, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten konpartsa.
12:00 • Foru plazan, herri kirolak.
12:00 • Erdialdean eta hirigune historikoan, Gesaltza fanfarrea.
12:00 • Peñafloidako Kondearen plazan, Gargantua.
12:00 • Francisco Juan Aiala plazan, azoka arabiarrak.
12:30 • Peñafloidako kondearen plazan, *Bambi: una vida en el bosque* haurrentzako ikuskizuna.
12:30 • Aihotz plazan, Udal Folklore Akademiako trikitilariak.
12:30 • Santa Maria katedralaren atarian, ganbera musika: *Malto Vivace*.
13:00 • Kalez kale, Espainia plazan hasita, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten konpartsa.
13:00 • Florida parkean, Udal Musika Bandaren kontzertua.

13:15 • Espainia plazan, ikurrinaren omenaldia.
13:30 • Aihotz plazan, Amets Arzallus eta Andoni Egaña bertsoariak.
17:00 • Zezenetara joatea.
17:00 • Abentura gunea.
18:00 • Zezen plazan, zezenketa.
18:00 • Peñafloidako Kondearen plazan, Aragoiko jota taldea.
18:00 • Prado parkean, gargantua.
18:00 • Azoka arabiarrak.
18:30 • Erdialdean eta hirigune historikoan, Gesaltza fanfarrea.
19:00 • Falerina lorategian, Similar Interests musika taldea.
19:00 • Florida parkean, Oceanic orkestra.
19:30 • Aihotz plazan, txistulari kontzertua.
19:30 • Fernandez de Pierola apezpikuaren lorategietan, umore txokoa. Alex O'Dogherty.
20:00 • Principal antzokian, *En verdad os digo* antzezklana.
20:30 • Falerina lorategian, losu Bravoren kontzertua.
20:30 • Aihotz plazan, Iarrain dantza eta txulalari.
20:30 • Zezenetatik itzultzea.
22:00 • Ogeta pilotalekuan, Andre Maria Zuri esku pilota txapelketa.
22:30 • Principal antzokian, *En verdad os digo* antzezklana.
23:00 • Mendizabaln, Gasteizko Pirotekniak ikuskizunen Nazioarteko XII. Erakustaldia. Xaraiva (Galizia).
23:00 • Probintzia plazan, Mariachi Imperial Elegancia Mexicana.
23:00 • Fernandez de Pierola apezpikuaren lorategietan, gau elektroniko Butterfly Kollektiven eskutik.
23:30 • Olagibel kalean zezensuzkoak, eta musika giroa.
00:00 • Foru plazan, Soraya.
00:00 • Arka plazan, Drindots.
00:00 • Aihotz plazan, Anne Etxegoien & Aizkoa abesbatza.

00:00 • Txosnetan, Gatillazo, GBH eta MC Nasser Rhano.
00:00 • Erdialdean eta hirigune historikoan, Biotzatarrak eta Ezberdinak fanfarreak.
00:30 • Espainia plazan, Nueva Alaska Orkestra.
01:30 • Aihotz plazan, euskaraokoa eta DJak.

» Abuztuak 6, asteazkena

10:30 • Zezen plazan, bigantxak.
10:30 • Santa Isabel hilerrian, errespontsua eta eskaintzak hildako Urrezko Zeledonei.
10:30 • Foru plazako pilotalekuan, Andre Maria Zuriaren euskal pilota txapelketa.
11:00 • Espainia plazan, Haurrentzako X. Marrazketa Lehiaketa.
11:30 • Olagibel plazan, karting-a.
11:30 • San Migel elizan, meza, aurrekua eta lore eskaintza.
11:30 • Abentura gunea.
12:00 • Loma jeneralaren plazan, gastronomia eta eskulangintza.
12:00 • Espainia plazan, kalejira.
12:00 • Kalez kale, San Prudentzio kaletik hasita, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten Konpartsa.
12:00 • Foru plazan, herri kirolen Andre Maria Zuriaren torneo.
12:00 • Fernandez de Pierola apezpikuaren lorategian, haur jokoak.
12:00 • Andre Maria Zuriaren plazan, abarka jaurtiketaren txapelketa, X. edizioa.
12:00 • Peñafloidako kondearen plazan, gargantua.
12:00 • Erdialdean eta hirigune historikoan, musika giroa Gesaltza fanfarrearekin.
12:00 • Azoka arabiarrak.
12:30 • Santa Maria katedralaren atarian, Lausoka taldea.
12:30 • Aihotz plazan, trikitixa. Udal Folklore Akademiako trikitilariak.

12:30 • Peñafloidako kondearen plazan, haurrentzako ikuskizunak.
12:30 • Urrezko Zeledonon plazan, I. Zeledon mus txapelketa. Finala.
13:00 • Kalez kale, Probintzia plazan hasita, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten Konpartsa.
13:00 • Florida parkeko kioskoan, Udal Musika Banda.
13:30 • Aihotz plazan, bertsoariak: Irati Anda, Odei Barroso, Jagoba Apaolaza eta Jon Maia. Gai-jartzailea: Olatz Santocildes.
17:00 • Zezenetara joatea.
17:00 • Abentura gunea.
18:00 • Zezen plazan, zezenketa.
18:00 • Peñafloidako kondearen plazan, Tudela cantajota taldea.
18:00 • Prado parkean, gargantua.
18:00 • Azoka arabiarrak.
18:30 • Urrezko Zeledonon plazan, II. mahai futbol txapelketa.
18:30 • Erdialdean eta hirigune historikoan, Gesaltza fanfarrea.
19:00 • Falerina lorategian, *Moons-hine Wagon* kontzertua.
19:00 • Florida parkean, Fusion.
19:30 • Aihotz plazan, dantza plazan. Ortzadar taldea.
19:30 • Fernandez de Pierola apezpikuaren lorategian, umore txokoa. Iñaki Urrutia eta JJ Vaquero.
20:00 • Principal antzokian, *El crédito* antzezklana.
20:30 • Falerina lorategian, Riffs and chips musika taldea.
20:30 • Iarrain dantza eta txulalari.
20:30 • Zezenetatik itzultzea.
21:30 • Arka plazan, *Monkey Man* kontzertua.
22:00 • Ogeta pilotalekuan, Andre Maria Zuri esku pilota txapelketa.
22:30 • *El crédito* antzezklana.
23:00 • Mendizabaln, FML Pirotekniak (Araba).
23:00 • Probintzia plazan, askotariko ikuskizunak.

SOINUEDER
kooperatiba



Tel.: 944 558 347 www.soinueder.com soinueder@euskalnet.net

Jai zoriontsuak,
Gasteiztarrok!



 euskotren tranbia

23:30 ▶ Olagibel kalean, zezensuzkoak eta musika giroa.
00:00 ▶ Foru plazan Rosendo.
00:00 ▶ Aihotz plazan, Hesian.
00:00 ▶ Arka plazan, Joselu Anaiak.
00:00 ▶ Txosnetan, DJ Loro & Selektah Stepi eta Esne Beltza.
00:00 ▶ Erdialdean eta hirigune historikoan, musika giroa: Biotzatarrek eta Ezberdinak fanfarreak.
00:30 ▶ Espainia plazan, London Orkestra.
01:00 ▶ San Frantzisko aldapan, kontzertua Burkina Faso taldea eta DJ Mike eta DJ Aitor Izquierdo.
01:30 ▶ Aihotz plazan, Euskaraokea eta Djak.
02:00 ▶ Andre Maria Zuriaren plazan, XII. Banana dantza lehiaketa.

«Abuztuak 7, osteguna»

10:30 ▶ Zezen plazan, bigantxak.
10:30 ▶ Andre Maria Zuriaren plazan, XX. Txikien argazkiak.
10:30 ▶ Andre Maria Zuriaren jaietako euskal pilota txapelketa.
11:00 ▶ San Migel elizan, haur meza Zeledon Txiki eta Neska Txikiarekin.
11:00 ▶ Omenaldia Aspaceri bere 25. urteurrenean.
11:00 ▶ Kalez kale, San Prudentzio kaletik hasita, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten Konpartsa.
11:30 ▶ Andre Mari Zuriaren irudiaren aurreko plazatxoan, lore eskaintza eta ohorezko aurrekua, Zeledon Txiki eta Neska Txiki eskainia.
11:30 ▶ Prado parkean, abentura guinea eta ipuin kontalariak.
11:30 ▶ Loma jeneralaren plazan, gastronomia eta eskulangintza.
12:00 ▶ Espainia plazan, Zeledon Txiki eta Neska Txikiaren jaitsiera, Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda eta Buruhandien konpartsa- ren dantzaldia.
12:00 ▶ Espainia plazan hasita, trikitilarien kalejira.
12:00 ▶ Foru plazan, herri kirolen Andre Maria Zuriaren lehiaketa.
12:00 ▶ Urrezko Zeledonon plazan, haurrentzako VIII. Zaku Lasterketa.
12:00 ▶ Artiumen aurreko plazan, urdaiazpiko dastatzea.
12:00 ▶ Artiumen aurreko plazan, X. Estropada Bandera.
12:00 ▶ Azoka arabiarra.
12:00 ▶ Prado parkearen inguruan, musika giroa, Gesaltza fanfarrea.
12:30 ▶ Peñafloidako Kondearen plazan, Eidabe konpainiaren *Sardina freskue* ikuskizuna.
12:30 ▶ Aihotz plazan, Udal Folklore Akademiako Trikitilariak.
12:30 ▶ Gargantua.
13:00 ▶ Kalez kale, Espainia plazatik abiatuta Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten Konpartsa.
13:00 ▶ Florida parkeko kioskoan, Udal Musika Banda.
13:30 ▶ Aihotz plazan, bertsolariak: Oihane Perea, Etxahun Lekue, Ander Solozabal eta Unai Iturriaga. Gai-jartzailea: Maialen Kortabarria.
17:00 ▶ Zezenetara joatea.
17:00 ▶ Florida kaletik Aihotz plazara Txikiak festara joatea.
17:00 ▶ Prado parkean, abentura guinea eta lantegi dibertigarriak.
18:00 ▶ Zezen plazan, zezenketa.

18:00 ▶ Peñafloidako Kondearen plazan jotak. Voces del Ebro.
18:00 ▶ Prado parkean, gargantua.
18:00 ▶ Foru plazako pilotalekuan, pilota partidak eta pintxo potea.
18:00 ▶ Aihotz plazan, txikiertzako jarduerak eta askaria.
18:00 ▶ Azoka arabiarra.
19:00 ▶ Florida parkean, Euro Show.
19:30 ▶ Aihotz plazan, Gaiteros de El ciego & Friendo.
19:30 ▶ Fernandez de Pierola apezpikuaren lorategietan, umore txokoa.
20:00 ▶ Aihotz plazatik Florida kale- ra, txikien itzultzea.
20:00 ▶ *El crédito* antzezlan.
20:30 ▶ Larrain dantza eta txulalai.
20:30 ▶ Zezenetatik itzultzea.
22:00 ▶ Ogeta pilotalekuan, Andre Maria Zuri esku pilota torneo.
22:00 ▶ Fernandez de Pierola apezpikuaren lorategietan, karaokea eta zurrakapote dastatzea.
22:30 ▶ *El crédito* antzezlan.
23:00 ▶ Mendizabal, Vulcano Piro- teknia (Madrid).
23:00 ▶ Probintzia plazan, Boleroak eta Hegoamerikako musika Araciel taldearen eskutik.
23:30 ▶ Olagibel kalean, zezensuzkoak eta musika giroa.
00:00 ▶ Foru plazan, Ayrin.
00:00 ▶ Aihotz plazan, Zea Mays.
00:00 ▶ Txosnetan, Arenna, The Soulbreaker Company eta Eskean Kristo taldeak.
00:00 ▶ Erdialdean eta hirigune historikoan, musika giroa: Biotzatarrek eta Ezberdinak fanfarreak.
00:30 ▶ Espainia plazan, Nueva Época orkestra.
01:30 ▶ Aihotz plazan, euskaraokea eta Djak.

«Abuztuak 8, ostirala»

09:00 ▶ San Migel elizan, meza, lo- reak eskaintzea eta neska eta blusa beteteranoen ohorezko aurrekua.
10:00 ▶ Espainia plazan, kalejira.
10:00 ▶ Espainia plazan, XXI. Sukal- daritza eta pintxo lehiaketak.
10:30 ▶ Zezen plazan, bigantxak.
10:30 ▶ Bastiturri kalean, XX. ganba- jan herrikoa.
10:30 ▶ Foru plazako pilotalekuan,

Andre Mari Zuriaren jaietako euskal pilota txapelketa.
11:00 ▶ Andre Maria Zuriaren plazan, haurrentzako marrazketa lehiaketa.
11:00 ▶ Fernandez de Pierola apezpi- kuan, haurrentzako jarduerak.
11:30 ▶ Abentura guinea.
11:30 ▶ Loma jeneralaren plazan, gastronomia eta eskulangintza.
12:00 ▶ Espainia plazan hasita, triki- tilarien kalejira.
12:00 ▶ Kalez kale, San Prudentzio kaletik hasita, Erraldoi Buruhandi, Zaldi eta Txoten konpartsa.
12:00 ▶ Foru plazan, herri kirolen An- dre Maria Zuri torneo.
12:00 ▶ Urrezko Zeledonon plazan, aparjaja.
12:00 ▶ Gargantua.
12:00 ▶ San Martin inguruan, musi- ka giroa: Kilkir fanfarrea.
12:00 ▶ Francisco Juan Aiala plazan, azoka arabiarra.
12:30 ▶ Aihotz plazan, Udal Folklore Akademiako trikitilariak.
12:30 ▶ Peñafloidako kondearen plazan, umeentzako ikuskizuna.
12:30 ▶ Probintzia plazan, El Meneito Veterano XIX. Dantza Lehiaketa.
13:00 ▶ Florida parkeko kioskoan, Udal Musika Banda.
13:00 ▶ Kalez kale, San Prudentzio egoitzan hasita, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten konpartsa.
13:30 ▶ Aihotz plazan, bertsolariak: Felipe Zelaia, Iratxe Ibarra, Iñaki Vi- ñaspre eta Beñat Gaztelumendi.
17:00 ▶ Zezenetara joatea.
17:00 ▶ Prado parkean, abentura gu- nea eta lantegi dibertigarriak.
18:00 ▶ Zezen plazan, zezenketa.
18:00 ▶ Jotak, Estampa Navarra.
18:00 ▶ Probintzia plazan, herri kirol- lak haurrentzako.
18:00 ▶ Prado parkean, gargantua.
18:00 ▶ Azoka arabiarra.
18:30 ▶ Arka plazan, txaranga lehia- keta.
18:30 ▶ Erdialdean eta hirigune his- torikoan, Biotzatarrek fanfarrea.
19:00 ▶ Florida parkean, Meteoro.
19:30 ▶ Aihotz plazan, Xabi Aburr- zaga.
19:30 ▶ Fernandez de Pierola apezpi- kuaren lorategietan, umore txokoa.

20:30 ▶ Larrain dantza eta txulalai.
20:30 ▶ Zezenetatik itzultzea.
20:30 ▶ Principal antzokian, *En el es- tanque dorado* antzezlan.
22:00 ▶ Ogeta pilotalekuan, Andre Maria Zuri esku pilota torneo.
23:00 ▶ Gasteizko Piroteknia Ikuski- zumen Nazioarteko XII. Erakustaldia. Turis Piroteknia (Valentzia).
23:00 ▶ Probintzia plazan, *Miguel Strogoff, el correo del zar* ikuskizuna.
23:30 ▶ Olagibel kalean, zezensuzko- ak eta musika giroa.
00:00 ▶ Foru plazan, Betagarri.
00:00 ▶ Aihotz plazan, Txuma Mu- rugarren eta Angel Unzu.
00:00 ▶ Txosnetan, MC Onak eta Ze Esatek! taldeak.
00:00 ▶ Erdialdean eta hirigune his- torikoan, Korapilo fanfarrea.
00:30 ▶ Espainia plazan, La Fania Perfect orkestra.
01:30 ▶ Aihotz plazan, euskaraokea eta Djak.
02:30 ▶ San Prudentzio kalean, txo- rizo dastatzea.

«Abuztuak 9, larunbata»

09:00 ▶ Espainia plazan, elkartasu- nezko dastatzea.
10:00 ▶ Estibalizko Andre Mariaren santutegian, zaldiketa frogak.
10:30 ▶ Zezen plazan, bigantxak.
10:30 ▶ Andre Mari Zuriaren jaietako euskal pilota txapelketa.
11:30 ▶ Arka plazan, elkartasunezko pintxo potea.
11:30 ▶ Prado parkean, abentura gu- nea eta lantegi dibertigarriak.
12:00 ▶ Espainia plazan, kalejira.
12:00 ▶ Kalez kale, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten Konpartsa.
12:00 ▶ Foru plazan, herri kirolen An- dre Maria Zuriaren torneo.
12:00 ▶ Artiumen aurreko plazan, IX. txorizo jan herrikoa.
12:00 ▶ Andre Maria Zuriaren pla- zan, igerilekua. Garbiaren eguna.
12:00 ▶ Txagorritxun, Biotzatarrek fanfarrea.
12:00 ▶ Gargantua.
12:00 ▶ Azoka arabiarra.
12:30 ▶ Aihotz plazan, trikitilariak.
12:30 ▶ Peñafloidako kondearen plazan, Poxpolo eta Konpainia.

13:00 ▶ Espainia plazan hasita, Erral- doi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten Kon- partsaren agurra.
13:00 ▶ Florida parkean, Udal Musi- ka Banda.
13:30 ▶ Ikuskizun ibiltaria, *Osos del Pi- rineo*.
13:30 ▶ Aihotz plazan, bertsolariak: Xabi Igoa, Ruben Sanchez, Maialen Lujanbio eta Eneko Fernandez. Gai- jartzailea: Idoia Beitia.
17:00 ▶ Espainiako plazatik, zezen- tara joatea.
17:00 ▶ Prado parkean, abentura gu- nea eta lantegi dibertigarriak.
18:00 ▶ Zezen plazan, Izkingile Lehiaketa eta jazuaren erakustaldia.
18:00 ▶ Udal bolatokian, Blusa eta nesken taldeentzako arabar erako bolo jokoan itxapelketa.
18:00 ▶ Prado parkean, gargantua.
18:00 ▶ Azoka arabiarra.
18:30 ▶ Pradon, haur diskoteka.
19:00 ▶ Foru plazan, Eusko Label dastatzea: txerri erre pintxoak.
19:00 ▶ Florida parkean, Odeia.
19:30 ▶ Aihotz plazan, dantza Udal Folklore Akademiarekin.
19:30 ▶ Fernandez de Pierola apezpi- kuaren lorategietan, umore txokoa.
20:00 ▶ *Osos del Pirineo* ikuskizuna.
20:30 ▶ Larrain dantza eta txulalai.
20:30 ▶ Zezenetatik itzultzea.
20:30 ▶ *En el estanque dorado*.
22:00 ▶ Ogeta pilotalekuan, Andre Maria Zuri esku pilota lehiaketa.
23:00 ▶ Probintzia plazan, Daniel Di- ges.
23:00 ▶ Espainia plazan, Jamaica Show orkestra.
23:30 ▶ Olagibel kalean, zezensuzko- ak eta musika giroa.
00:00 ▶ Erdialdean eta hirigune his- torikoan, Kilkir eta Kirrinka.
01:00 ▶ Andre Maria Zuriaren pla- zan, Zeledonon agurra, Udal Musika Bandarekin. Azken traka, Valecea pi- roteknarekin. Herri salbea. Zeledon agurtzeko omenaldia, Ohorezko Au- rreskuarekin. Kandelaren prozesioa.
01:00 ▶ Txosnetan, Dr. Deseo taldea.
01:30 ▶ Aihotz plazan, euskaraokea eta Djak.
02:30 ▶ San Prudentzio kalean, txo- kolate eta bizkotxo dastatzea.

artepan

-Gosariak eta pintxoak
-Bazkariak eta afariak
enkarguz.
Kutxi - 11
Tlf: 945 283418



APAINDURA

Zerkabarren, 27
@-Faxa: 945-14 41 95
GASTEIZ



EKITALDIZ BETETA DAGO ZELEDONEN ATERKIA

Festa giroa gailenduko da Gasteizen etzitik larunbatera arte. 300 ekitaldi baino gehiago prestatu dituzte Andre Maria Zuriaren jaietan, herritarren gozagarri.

Zeledonen jaitzierarako prest dago Gasteiz. Etititik larunbatera arte etengabeko festa giroan sartuko da Arabako hiriburua. Guztira, 300 ekitaldi baino gehiago izango dira Andre Maria Zuriaren jaietan, adin eta atsegite guztientzako.

Zalduondoko gizasemea astelehenean jaitziko den arren, gasteiztarrak dagoeneko hasi dira motorra berotzen. Atariko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur, esaterako, munduko patata arrautzopil handiena egingo dute Andra Maria Zuriaren plazan, eta, ondoren, 9.000 zati inguru banatuko dituzte.

Gauean, 21:00etan, pregoia irakurriko du Diego Guerrero sukaldariak. Inaki Garcia Calvo Gasteizko Udaleko Kultur Plangintzaren eta Festen zinegotziaren arabera, «2014ko Gastronomia Hiriburua garen urte honetan, ostalariak dira benetako protagonistak, eta horregatik erabaki dugu haiek izatea pregoilariak, Diego Guerrero chefa bozeramaile dutela». Bi Michelin izar dituen

Arabako sukaldari bakarra da Guerrero.

Andre Maria Zuriaren jaiak iragartzeko kartel ofizialak *Teiltuen gainean* izena du, eta Juan Gargallo Vazquez gasteiztarrak egin du. Aurkeztutako 38 karteletatik zortzi hautatu zituen epaimahaia, eta epaimahai teknikoak aukeratu zuen, ondoren, Gargalloren lana. 1.500 euroko diru saria jaso du.

Astelehenean, 18:00etan, agertuko da Zeledon, aterkia eskuan duela. Zerutik jaitzi, eta aurtengo Andre Maria Zuriaren festei hasiera emango die Gorka Ortiz de Urbina. Martxoaren 3ko biktimen elkarteak botako du suziria, eta ekitaldia Valecea piroteknika girotuko du. Ondoren, Andre Maria Zuriaren omenezko bezpera handiak egingo dituzte San Miguel elizan (19:30). Ordu berean, Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten konpartsa elizako eskaileren azpitik abiatuko du dantzaldia, eta hainbat kaletan barrean ibiliko dira.

Beste hainbat ekitalditan parte hartuko du Andre Maria Zuriaren Kofradiak. Hala nola, etzi, Farolen



ZELEDON. Gorka Ortiz de Urbina egingo du aurturaren Zeledonenena. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Arrosarioko prozesioa antolatuko du 22:00etan; eta, asteartean, egunsentiko meza (08:00) eta gotzain meza (10:30) egingo dute.

Askotariko kontzertuak

Urtero legez, protagonismo handia izango dute musikak eta ikuskizunek. Kolege guztietako zuzeneko emanaldiak egingo dira. Hilaren 5ean eta Gean ganbera musika joko dute Santa Maria katedralean eguerdian. Foru plazan La Pegatinak Sorayak, Rosendok, Aurynek eta Betagarrik joko dute; eta Aihotz plazan Anne Etxegoien & Aizkoa abesbatzak, Hesianek, Zea Maysek eta Txuma Murugarren eta Angel Unzuk. Arka plazan dantzaldiak egingo dituzte, Espainia plazan orkestrak ariko dira eta Palerina lorategietan herriko taldeek joko dute.

Txosnak unibertsitate eremuan egingo dira, eta gauero antolatu dituzte kontzertuak. Esne Beltza, Ze Esatek, Gatillazo eta Dr. Deseo ariko dira, besteak beste. Gasteizko taldeek ere oholtza gainera igotze

tzeko aukera izango dute, ostegunean Arena eta The Soulbreaker Company rock taldeak ariko baitira. Gainera, GBH punk talde mitikoak joko du asteartean —Gatillazorekin eta Xuorumeekin batera—. Britainiarrek 1978. urtetik daramate oholtzak astintzen.

Aurreko urteetan bezala, euskal kulturari estuki lotuta egingo da Aihotz plaza. Eguerditik gaueko ordu txikitara arte dantzaldiak, bertso saioak eta kontzertuak egingo dituzte egunero. Asteartetik aurrera trikitia joko dute Udaltza Folklore Akademiak trikitalariek. 13:30ean bertsolariak igoko dira oholtzara. Txistulariak eta larrain dantzaldiak eta txulalaiak 19:30ean eta 20:30ean izango dira. Kontzertuak 00:00etan hasiko dira, eta 01:30etik aurrera euskarokea egingo dute.

Titin III.aren agurra

Pilota feria, berriz, murriztu egingo dute aurtur, eta lau jaialdi egingo dira soilik; hiru binakako torneorenak, eta, azkena, ardoaren desa-

fioa. Puntako pilotariak ariko dira, tartean, ziurrenik, Martinez de Irujo, ezker eskuko minetik garaiz osatu bada. Hilaren 9an Titin III.a omenduko dute. Errioxarrak harreman berezia eduki du beti Ogetarekin, eta Gasteizko torneo berderratz aldiz irabazi du. Agur berezia izango du Tricioiko maisuak.

Profesionalen partidez gain, Arabako Euskal Pilota elkarteak Andre Maria Zuriaren jaietako euskal pilota txapelketa antolatu du. Eguraldiak galarazten ez badu, Foru plazako pilotalekuan jokatuko dira partidok —euriarekin, Ogetan—, eta emakumezkoak zein gizonetzkoak ariko dira.

Mendizabalan, feria lekuaren ondoan, izango da Gasteizko Piroteknia Ikuskizunen Nazioarteko XII. Erakustaldia. Galiziako, Arabako, Madrilgo eta Valentziako (Herrialde Katalanak) piroteknika lehiatuko dira, eta herritarrek www.vitoria-gasteiz.org webgunearen bidez edo 010 telefonora deituta eman diezaiokete botoa us-tez ikuskizun onena izan denari.

“7”
JATETXEA
TABERNA

© 945 27 22 98 • Aitzogile, 3

• VIRGEN BLANCA •
taberna-jatetxea

Andra Mari zuriaren plaza
© 945 28 61 99 **GASTEIZ**

CONFECIONES PINEDO
Era guztietako jaietarako jantziak
San Antonio K. / 11 - GASTEIZ

GORA ARABA EUSKALDUNA !!
Heraclio Fournier, 15
Tel.: 945 15 53 39 - 01006 GASTEIZ

JAI EKOLOGIKOEN ALDE KONFIANZA ETA ELKARLANA

BASQRLEGI.com
Tel.: (+34) 608 622 965

Basqrlegi.com



OMENALDIA. Zaramagako sarraskian hildakoen omenezko ekitaldia, aurtengo martxoaren 3an. JUANAN RUIZ / ARP

MEMORIAREN SUZIRIA

Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteak botako du aurtengo Andre Maria Zuriaren jaietako hasiera emango dien txupinazoa; EH Bildu koalizioaren udal taldeak hartu du erabakia.

Oroimen historikotik eta justizia soziale-
tik asko izango du
aurtengo Andre
Maria Zuriaren jaietako txupinazoak. Izan ere, Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteak botako du lehen suziria, Zeledonen jaietsierekin.

Andoni Txasko da taldearen bozeramailea. Haren aburuz, «ohorea» da txupinazoa botatzea, eta lanean jarraitzeko «akuilua». «Suziria botatzeko aukeraren berri izan genuenean ez genuen zalantzarik eduki, ez geure buruarekiko aitortpen moduan, baizik eta gure alde borrokatu diren gasteiztar guztien aitortpen gisa». Balio handia eman dio suziria botatzeari: «Martxoaren 3ko borroka ulertzeko eta hedatzeko balioko du, ukatzen zaigun justiziaren bila jarraitzeko».

Urte bakoitzean udal talde bati dagokio festetako txupinazoa nori botatu duen aukeratzeari. Aurtengo EH Bilduri egokitu zaien erabakia hartzea, eta koalizio abertzaleak 1976ko sarraskiko biktimen elkarteak aukeratu. Uztail erdialdean iragarri zuten jendaurrean izendapena. Urte hauetan guztietan Martxoak 3 elkarteak egindako lana goraiatu, eta «egia, justizia eta erreparazio eskubideak betetzeko» daudela gogorarazi zuten Kike Fernandez de Pinedok, EH Bilduko Gasteizko bozeramaileak.

Koalizioaren aldeko esker oneko hitzak ditu Txaskok: «Eskerrak eman nahi dizkiot EH Bilduri, errekonozimendua bultzatzailer izan delako; haiek gabe ez genuen aitortpen hau jasoko». Elkarteak bozeramaileak nabarmendu du herritarren babes osoa izan dutela beti, baina erakundeen aldeetik ez dutela halakorik jaso. Bi eremu horien artean kokatu du txupinazoa, erabakia alderdi politikotik batek modu partikularrean hartu duelako, baina udalak bere egin dutelako proposamen hori.

Ez da Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteak Andre Maria Zuriaren jaietan jaso duen lehenengo errekonozimendua. 2005ean Blusen eta Nesken Batzordeak ikurrina eman zion, eta sei urte geroago, 2011n, Txosna Batzordeak Txosnaria eskaini zion.

Udalarekin ika-mika eduki dute aurtengo, autobus geltoki berriaren harira. Adolfo Suarez Espainiako presidentea ohia hil zenean, geltokiari haren izena jarri nahi izan zion Javier Maroto alkateak. Herritar asko erabaki horren aurka agertu ziren, politikariak 1976ko gertakarietan izan zuten erantzukizunagatik —Manuel Fraga Iribarne ordezkatu zuen, segurtasun indarren burua Alemaniako zegoelako—. Hiru-lau egunean 12.000 sinaduratik gora bildu ziren geltokia biktimen alde izenda zezatela eskatzeko. Udalak

atzera egin zuen azkenean, eta geltokiak ez du izenik edukiko.

Gasteizko Udalarekin izandako hartu-emanetatik harago, urte garrantzitsua izan da Martxoaren 3ko Biktimen Elkartearentzat. Maria Servini Argentinako epaile frankismoaren krimenak ikertzen ari da, eta hainbat torturazaileraren estraditazioa eskatu du. Auzi horrekin martxoaren 3ko erasoaren erantzuleak akusatuen aulkian esertzeko itzarpena du Txaskok.

Bozeramailearen hitzetan, «astelehenean justiziaren, egiaren, oroimenaren aldeko borroka eta biktimen eta egindako lanaren aitortpena presente egongo dira Andre Maria Zuriaren festetan». Ez dira bakarrik egongo, Pedro Mari Martinez Ozioren, Francisco Aznar Clementeren, Romualdo Barroso Chaparroren, Jose Castillo de Basaren, Bienvenido Peredaren eta Zaramagan zauritutako ehunka langileen oroimenak ere botako du suziria.

1976ko festen oroitza

Aurtengo jaiak, ezinbestean, 1976koak ekarriko dituzte gogora. Ospakizunerako eta festarako gogo gutxi zuten gasteiztarrek urte hartan. Normaltasun kutsua eman nahi izan zion udalak, baina ez zen halakorik izan. Jose Luis Isasik uko egin zion Zeledon gisa ateratzeari, eta Enrique Oribek ordezkatu zuen. Blusek eta Neskek bat egin zuten plantoetarekin. Giroa erabat ozipindu zen, eta hainbat istilu eta protesta egon ziren. Polizia herritarrei oldartu zitzaizen behin baino gehiagotik, eta atxiloketak egin zituzten. Ospatu ez ziren jaiak izan ziren 1976. urtekoak.

Fotokopiak

ZALU

WIKIPEDIA
WIKISPECIES
WIKISOURCE
WIKIBOOKS
WIKIQUOTES
WIKISPEAKIES
WIKIWORD
WIKIWAYBACE
WIKIVISUALIZATION
WIKIWEB
WIKIWARMS
WIKIWARMS
WIKIWARMS

fotzalu@gmail.com

Vitoria-Gasteiz (Álava-Araba)
Ronda Miraflores 1º planta, 48008 Vitoria
Tel: 945 14 19 19-1 Fax: 945 03 18 03
www.fotzalu.com

WIKIPEDIA (Álava-Araba)
Leonardo da Vinci, 3 Eº Bº Baja 48008
Tel: 945 29 12 38-1 Fax: 945 29 69 91

animo kolore gaita biziak!

Komunitate bat, hamaika abantaila **berrialaguna**

NONBAIT.com

EUSKAL PRODUKTUAK OPARITZEKO
ETA BILDUMA EGITEKO

mail@nonbait.com Mateo de Moraza Kalea, 1
Tfnoa. 945 23 22 29 01001 Gasteiz - Araba

Eramun

ARGAZKI-ESTUDIOA

HELENI KONTOHOLPER, 23
TEL. 945 13 71 02
UTUO - VITORIA-GASTEIZ

bai

lan eta bizi

ARABIA ALERGIAN: MONTAÑA, JARDUNA		SUZIRIA SUZIRIARRAK	
Elkate	945 152 050	ASABE	945 140 460
Buzkaltze Komunitate Kooperatiba Federatua	945 121 127	Buzkaltze (EH) Kooperatiba	945 280 795
Dakota II	945 082 718		
ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA		ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Agua Urbain Bilbo	945 117 421	Hala Badinola	945 128 811
El Progeto Berdeak	945 235 740	ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Elkar Gasteiz - Campes	945 141 870	Egiteak	945 090 030
Elkar Gasteiz - San Prudensio	945 194 031	ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Herriko Gasteiz	945 231 195	Elkarrekin	945 121 028
Irrekoratze Kooperatiba	945 287 861	Elkarrekin	945 275 480
Suziria Kooperatiba	945 130 080	ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Suziria Kooperatiba	945 130 080	Elkarrekin	945 121 028
Suziria Kooperatiba	945 130 080	Elkarrekin	945 275 480
Suziria Kooperatiba	945 130 080	ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Suziria Kooperatiba	945 130 080	Elkarrekin	945 121 028
Suziria Kooperatiba	945 130 080	Elkarrekin	945 275 480
ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA		ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Agua Urbain Bilbo	945 117 421	Hala Badinola	945 128 811
El Progeto Berdeak	945 235 740	ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Elkar Gasteiz - Campes	945 141 870	Elkarrekin	945 121 028
Elkar Gasteiz - San Prudensio	945 194 031	Elkarrekin	945 275 480
Herriko Gasteiz	945 231 195	ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Irrekoratze Kooperatiba	945 287 861	Elkarrekin	945 121 028
Suziria Kooperatiba	945 130 080	Elkarrekin	945 275 480
Suziria Kooperatiba	945 130 080	ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Suziria Kooperatiba	945 130 080	Elkarrekin	945 121 028
Suziria Kooperatiba	945 130 080	Elkarrekin	945 275 480
ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA		ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Agua Urbain Bilbo	945 117 421	Hala Badinola	945 128 811
El Progeto Berdeak	945 235 740	ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Elkar Gasteiz - Campes	945 141 870	Elkarrekin	945 121 028
Elkar Gasteiz - San Prudensio	945 194 031	Elkarrekin	945 275 480
Herriko Gasteiz	945 231 195	ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Irrekoratze Kooperatiba	945 287 861	Elkarrekin	945 121 028
Suziria Kooperatiba	945 130 080	Elkarrekin	945 275 480
Suziria Kooperatiba	945 130 080	ARABIA ALERGIAN: SUZIRIA	
Suziria Kooperatiba	945 130 080	Elkarrekin	945 121 028
Suziria Kooperatiba	945 130 080	Elkarrekin	945 275 480

bai

durtagiarren elkartea

www.bai.com



**EUSKAL HERRIKO
INGURUMENAREKIN
KONPROMETITUAK**

www.ecofestes.com Tel. 943 563 684



**Mota guztietako
ekitaldien
soinu tapena**

Domingo Beltran 36, 5. B
Tel./Faxa: 945 22 69 77
txala@txala.euskalnet.net
01012 GASTEIZ

**LIZARRALDE
SOINVA**

TXALAPARTA, S.L.

Gasteizko Jaiak 2014
abuztuak 4tik 9ra

preso eta
iheslariak
etxera!

Txosnan
bokatak goxoak
eta giro ederra



**dis
per
tsio
rik
ez!**

Abuztuak 5, asteartea
Elkartasun eguna
Goizean material postua
15:00etan Elkartasun Bazkaria
Landatxon
Txartelak Erdizkan eta Txapelarrin Salgai



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL URREZKO ZELEDON

«Saritu nindutela jakitean, zoraturata geratu nintzen»

Urrezko Zeledon izendapena «harriduraz» eta «poztasunez» jaso du Aramaioko idazleak; Asun Gorospe Alaves futbol taldearen jarraitzailea da beste saritua.

Behin eta berriz errepikatu ditu «ez da normala» eta «oso pozik nago» esaldiak Josemari Velez de Mendizabalek (Aramaio, Araba, 1949). Ilusio handiz hartu du Urrezko Zeledonen izendapena. Gasteizen ibiliko da Andre Maria Zuriaren jaietan.

Pozik al zaudete Urrezko Zeledon izatearekin?

Oso pozik. Saritua nintzela jakin nuenean, batez ere jakin nuenean zeintzuek sinatu zuten eskaera, zoraturata geratu nintzen. Gasteizen politikariek ez dute parte hartzen hautaketan, Urrezko Zeledonek erakunde bat osatzen dute, epaimahai gisa parte hartzen dute, eta hautagaitzak jasotzen dituzte. Oso aseptikoa da saria, nolabait hiri osoak babesten du. Nire hautagaitza Aramaioko giza talde batek aurkeztu zuen, kolore askotakoak: oraingo alkateak, aurrekoak, diputatu batzuek...

Aramaioarren babes horrek oraindik eta bereziagoa egin du saria, ezta?

Bai, eskaera haiengandik irten da, ezustean harrapatu nau. 1999an Aramaioko seme kutun izendatu ninduten. Horrek, eta Aramaio herriak nire hautagaitza bultzatu izanak, areagotu egiten du jaioterriatik jaso dudan saria.

Gainera, nik bizi osoa euskaraz idatzi dut, eta Araba, nola esan, nahiko txepela izan da euskal kul-

turarekin; teoriarik, behintzat. Horrek sariari bestelako balioa ematen dio, Gasteizek euskarazko produkzio bat saritu duelako nolabait. Ez da normala; ez dut uste saridunen artean euskarari eta euskalgintzari hain lotua dagoen beste norbait egongo denik. Nire kasua kurioso da, gainera. Orain dela 30 urte, 1984an, Zalduondoko herriak errekonozimendu bat izan zuen nirekin, Zeledonen iturriaren erreprodukzio bat. Ez dut uste urrezko zeledonen artean egongo denik beste bat Zalduondoko eta Gasteizko herriek saritu dutena.

Euskalgintzari ere emandako saria ere bada, orduan?

Ez dut uste besterik egongo denik; gainera, hain euskaldun gutxi daukan hiriburuan. Hori interesgarria izan da nire irakurketa egin dudanean, oso pozik geratu naiz. Politika alorrekoek normalean ez dute horrelako keinurik egiten. Ni ez naiz Gasteizen bizi, Gipuzkoan bizi naiz, Arrasaten, nahiz eta bizi guztia Arabarekin oso lotuta egon naizen; harreman oso estua daukat. Periferian bizi naiz, eta gizaratean ez naiz ezaguna; seguru nago nirekin batera *ex equo* saritu duten Asun Gorospe askoz ezagunagoa dela ni baino Gasteizen.

Urte asko ibili zara euskalgintzan lanean, euskarak Gasteizko festetan duen presentzia eboluziorik nabaritu al duzu?

Noski. Duela 40 urte; Gasteiz bestelakoa zen; gero etorri da eboluzioa. Euskal hiriburuetatik, aldaketa handiena eduki du. 1982-1983an euskal kulturari buruzko kontzeptu minimoekin hitzaldiak ematen nituen Gasteizen, Araban euskara oso primitiboaren garai hartan. Ni oso baikoarra naiz, euskarak bilakaera handia izan duelako urte hauetan.

Andre Maria Zuriaren jaietan izango al zara?

Egunero ez bada, bi edo hiru egunetan joango naiz. Aurten, hainbat tokitan gonbidatu naute, eta agertuko naiz modu ofizialean, nahiz eta Urrezko Zeledonen emate ekitaldia irailaren 26an den. Zeledonen jaitsierara joango naiz, bai eta herri bazkari batera ere. Gustura joango naiz, ez zait batere kostatzen.

Festetara joateko zaletasuna duzu, beraz?

Urtero joaten naiz, Gasteizekin harreman handia daukat, sarritan joaten naiz. Urte hauetan Zeledonen jaitsierara ez nintzen joaten, jada 65 urte betetzera noialako. Baina aurten joan beharko dut.

Zer duzu gustukoan?

Lagunekin afaltzera joatea, eta afalostean barraketan eta jai giroa dagoen kaleetan barrena paseatzea, izozki bat jaten. Ez naiz pilotazalea, ez naiz zezenzalea. Festen bezperan joaten naizenean, oso gustura ibiltzen naiz Dato kalean eta hango jai giroan nahastuta. Nahiko parranda eta musika zalea izan naiz. Nire gorpuzta astintzen jakin badakit, izerdi batzuk botatzen, saltoka. Hori egin izan dut, eta egiten dut.

BLUSAK ETA NESKAK, FESTARAKO PREST

Andre Maria Zuriaren jaietarako, hirurogei ekitaldi baino gehiago antolatu ditu Blusen eta Nesken Batzordeak. Beste behin ere festetako ardatzetako bat izango dira, umore ona eta jai giroa lagun.

Santiago egunean iaiztik gordetako festa jantziei hautsa kendu ostean, Andre Maria Zuriaren jaietarako prest daude Gasteizko blusak eta neskek. Urtero legez, ekitaldi andana antolatu dute Arabako hiriburuko kaleak girotzeko, eta festaren ardatz nagusietako bat izango dira astelehenetik larunbatera. Hogei kuadrillak baino gehiagok osatzen dute Gasteizko Blusen eta Nesken Batzordea, eta bi mila lagun baino gehiago aterako dira kalera ongi pasatzeko eta gasteiztarrak festa giroan murgiltzeko helburuarekin.

Hirurogei ekitalditik gora prestatu dituzte, eta hainbat berritasun egongo dira: esate baterako, Aihotz plazan txosna bat jarriko dute. Festen atarian ere irekita egongo da gunea, gaur inauguratuko baitute. Astelehenetik larunbatera euskaraokea egingo du Geu elkarteak. 01:30ean izango da, eta, karaokeaz gain, hainbat disko jartzailek musika jarriko dute. Abuztuaren 7an, ostegunean, Aihotz plazakoaz gain, Fernandez de Pierola Apezpikuaren lorategietan egingo dute karaokea, 22:00etan, zurrakapote dastatzearekin batera.

Ostiraleko sukaldaritzak lehiaketak ere berritasunak izango ditu, Gasteiz 2014ko hiriburu gastronomikoa izatearen aitazkian, taldeentzako pintxo lehiaketa prestatu baitute. Horrekin batera, Arabako Errioxako ardo dastatzaileen kiniela eta Arabako produktua labeldunen erakusketa antolatu dute.

Berritasunak berritasun, tradizioek garrantzi handia dute blusen eta nesken artean, eta urterik urtera egiten diren hainbat ekitalditan parte hartzen dute. Hala, astearte goizean ohorezko aurrekua eta loreak eskainiko dizkiete Andre Maria Zuriari, eta Batasuna taldekoek erdialdeko kaleak girotuko dituzte egun osoan idiek tiratutako gurdirekin. 13:15ean ikurrinari omenaldia egingo diote, Espainia plazan, eta Algara dantza taldea han izango da.

Ohi bezala, zezenetara joatea eta zezen plazatik itzultzea girotuko dute blusek eta neskek. Espainia plazatik abiatuko dira Eduardo Dato eta Florida kaleetan barrena, 17:00etan, Iradier Arenara. Buelta 20:30ean izango da, eta bi taldetan banatuko dira blusak eta neskek.



Blusa beterano bat, iazko Andre Maria Zuriaren jaietan. JUANAN RUIZ / ARP

Batzuk Eduardo Dato kaletik joango dira, eta besteak, Jesus Guridi kaletik.

Aipatutako en atzean ez ezik, Andre Maria Zuriaren festetan ohiko bilakatu diren hainbat ekitaldiaren atzean daude blusak eta neskek. Besteak beste, abarka jaurtiketa eta mahai futbol txapelketa egingo dute asteazkenean; urdaiazpiko dastatzea, zaku lasterketa eta X. Estropada Bandera ostegunean; herri bazkaria, pankarta eta txaranga lehiaketak ostiralean; txorizo dastatzea larunbatean...

Aurreko urteetan bezala, abuztuaren 7a egun garrantzitsua izango dute. Goizean, Zeledon Txikirekin eta Neska Txikirekin San Migel elizako haur mezan parte hartuko dute. Ondoren, Zeledon Txikirekin eta Neska Txikirekin ohorezko aurrekuan eta lore eskaintzan egongo dira. Arratsaldean, txikiak festara joan eta itzuli egingo dira Blusen eta Nesken Batzordeak lagunduta.

Haurrentzat ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte festetako egun guztietan. Neska-mutikoen egunerodukiko dute zerekin ondo pasa-

tu: jinkanak, kartinga, abentura guneak, puzgarriak, marrazketa lehiaketak...

Txosnen egitaraua

Txosna Batzordeak programa zabala osatu du unibertsitate eremuan. Etzi inauguratuko dute, Aihotz plazatik egingo duten kalejirarekin. Big Band Berri eta Izerdi Gorria taldeak izango dira oholtzak gainera igoko diren lehen bi taldeak. Punk doinuek beteko dute txosna asteartean, Gatillazo, GBH eta Xuorum taldeek joko baitute.

Asteazkenean, Ikaile Egunean, DJ Loro & Selektah Stepiren eta Esne Beltzaren txanda izango da. Ostegunean, Arena eta The Soulbreaker Company gasteiztarrak eta Eskean Kristo bizkaitarrak arituko dira. Egun osoko egitaraua egingo da ostiralean, Entxosnario egunean. Goizean bertso saioa egingo da, eta eguerdian herri bazkari ekologikoa egingo dute. McOnak, Ze Esatek eta MC Nasser Rhano musika taldeak arduratuko dira gauean musika giroa jartzeaz. Txosnak itxeko, Doctor Deseok joko du larunbateko kontzertua.

ARANBA
TABERNA KUTXI, 68
BOKATAK, HAMBURGESAK, TORTILLA BERZIAK, KROKETAK ETA NAHIGUZUN GUZTIAK!

C/ TENERIAS
GASTEIZ
bar
TALUZA
Juan Apraiz, 7 01013 GASTEIZ Tel.: 945-22 93 49

DARDARA
GASTEIZ

LA RIOJANA
Gosariak - Pikoteoa - Kaxuelitak - Pintxoak
Kutxi kalea, 33 - Tel.: 945 25 02 39 - GASTEIZ

Judizmendia etora 12
Tf 945 28 73 48
Gasteiz
www.kirinduz.com
TREK
Lampyris
Spiuk
ETXERIKO
arco
KIRINDUZ

BODEGON GORBEA
BOKATAK ROCK & ROLL
HERRERIA / K GASTEIZ

ERROTA
HORTZ KLINIKA
Julian Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tel.: 945 213 390 • Faxa. 945 213 390
errotadental@euskalnet.net

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

ANDRE MARIA ZURIAREN JAIAK

**300
JARDUERA
BAINO
GEHIAGO
JAIAK
OSPAZKEKO**



! JAIEN ATARIKOA: musika, kultura eta gastronomia jarduerak (uztailaren 31tik abuztuaren 2ra)

! KONTZERTUAK FORU PLAZAN

La Pegatina (4)

Soraya (5)

Rosendo (6)

Auryn (7)

Betagarri (8)

! IKUSKIZUNAK PROBINTZIA PLAZAN

! BERTAKO TALDEAK FALERINA LORATEGIAN

! ABENTURA LEKUA PRADO PARKEAN

! KONTZERTUAK AIHOTZ PLAZAN

! SU ARTIFIZIALAK eta askoz gauza gehiago

Egitarau osoan hemen:

www.vitoria-gasteiz.org/gasteizkojaiak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala